

TUMOREEN ERAUZKETA ERRADIOFREKUENTZIAREN BIDEZ

Garmendia Larrañaga G., Esnaola Albizu M.

TUMOREEN ERAUZKETA ERRADIOFREKUENTZIAREN BIDEZ

GURUTZ GARMENDIA LARRAÑAGA

MAITE ESNAOLA ALBIZU

Erradiologia Zerbitzua

Donostia Ospitalea

Azken bi hamarkadetan tumore batzuen tratamendu perkutaneoak garatu da, teknika ezberdinak erabiliz. Teknika hauen artean bi nagusitu dira: alkoholaren injekzio intratumoralak eta erradiofrekuentzia hain zuzen.

1993. urtean, Rossi eta lankideek erabili zuten aurrenekoz erradiofrekuentzia gibeletako tumoreak tratatzeko, elektrokauterio deritzon zunda baten bitartez. Erradiofrekuentziak uhin elektromagnetikoak darabiltza (450-500 kHz-eko irrati-uhinak), eta horiek zeluletako ioiak astintzen dituzte. Astinketa honek tenperaturaren igoera dakar, nekrosi tisularra sortuz.

Teknika hau hasieran peroperatorioki erabilia izan zen, baina azken urteotan erabilera perkutaneoak ere zabaldu da.

Emaitzarik onenak tumore bakar txikiekin lortu dira (3 cm-ko diametroa dutenak edo txikiagoak), tumore handiagoetan emaitza txarragoak lortu direlarik. Analgesia edo anestesia guztiz beharrezkoak dira.

Orokorrean, teknika hau erabili duten gehienek diote erradiofrekuentziak alkoholaren injekzio intratumoralak baino konplikazio gehiago sortzen dituela (honako hauek nagusiki: mina, sukarra, abszesuak, hemoperitoneoa, hemobilia&).

Adituek diotenez, etorkizuna terapia konbinatuetan datza, hau da, tratamendu perkutaneoak eta beste tratamendu batzuk konbinatzea (terapia genetikoak, kimioterapia, erradioterapia, immunoterapia, terapia hormonalak, eta embolizazio transarterialak, batez ere).